

# KULTURA JARDUNALDIAK

## TXOSTENA

**gaze**  
KALE ERDOKOAKO

**K**  
KULTURA  
ALTERNATIBA

# Kultura jardunaldiak

**Maiatzak 6**  
Ignacio M<sup>a</sup> BARRIOA  
zentroan (Aularioan)

12:30etatik aurrera...

- Pintxoak
- Zocco handmade
- Ukelele kontzertua
- Antzerki foroa
- Argazki erakusketa
- Graffitiak
- Zumba
- Musika
- 18:00ak arte

DOMOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016  
ESKOPAKO KULTUR HERIKURIA  
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA  
DES2016-EU

Unibertsitatea  
Euzko Lehen Unibertsitatea  
Euzko Lehen Unibertsitatea

UNIVERSIDAD DE DEUSTO  
Deusto

tecnun  
Universidad de Navarra

Unibertsitatea  
Euzko Herriko Unibertsitatea

MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

Tknika  
LA BERRIETAN ZERBUZTUEN ERAGILEAK  
UNIBERTSITATEA

## **AURKIBIDEA**

1. Sarrera
2. Testuingurua
  - 2.1. Jardunaldiaren difusioa
  - 2.2. Behar teknikoak eta materiala
  - 2.3. Jardunaldiaren egitura
3. Kultura jardunaldia
4. Ondorio orokorrak
  - 4.1. Ongi atera zena
  - 4.2. Gaizki atera zena
  - 4.3. Aldatu beharrekoak
5. Pentagonoa
6. Eskerrak (Fitxa teknikoa)

## SARRERA

Kultura Alternatibarekin harremanetan jarri gara, kultura sustatzen eta erakustarazten duten jardunaldi batzuk aurrera eramateko. Ikusi dugu, kultura sortzen dugun gazte asko gaudela, baina ez dugula hau aurrera eramateko modurik (sostengu ekonomikoa, soinu ekipoa, espazioa, etb.). Beraz, kultura eman eta jasotzeko espazioa sortzea aproposa iruditu zaigu. Horrela, tailer honekin lortu nahi izan duguna, kultura eta gazteon arteko zubi bat eraikitzea izan da. Jardunaldi baten bitartez:

→ **Eguna:** Maiatzaren 6an 13etatik 19etara.

→ **Lekua:** Ignacio M<sup>a</sup> Barriola Zentroko areto nagusia eta kanpoko espazioan, UPV/EHU.

→ **Partaideak:** 50 ikasle, 19 artista inguru, GAZEKideak eta idazkaritza teknikoa.



## **TESTUINGURUA**

Kultura Alternatiboa oinarrizko kultura eta kultura alternatiboa sustatzeko plataforma bat da. KA-ren helburua nagusia, errekurtsuak lortzeko nahiarekin eta aterki baten pean (KA), jada existitzen diren artista eta kultur ekimenak elkartu eta ikusaraztea da.

Horrez gain, KA-k gabeziak aurkitu eta konpondu eta ekimenak, proposamenak eta bestelako akzioak bateratzen ditu. Proiektua guztiz horizontala eta libre da, eta erabakiak parte hartzaile guztien artean hartzen dira. Gainera mundu guztira irekia dago, artistak, zaleak, profesionalak... Adar artistiko guztiak barne daude eta ez dago baldintza murriztailerik parte hartzeko orduan.

Kultura Alternatiboak topaketak antolatzen ditu non edozeinek parte hartu dezakeen, eta gainera hainbat elkarrizketa kolektibo egiten dituzten.

## **KULTURA JARDUNALDIA**

### **JARDUNALDIAREN DIFUSIOA**

Jardunaldia jendeari iristarazteko hainbat bide erabili genituen:

- Alde batetik ekitaldirako prestatutako kartela goi hezkuntzako hainbat zentroetan itsatsi genituen, bertako ikasleek jardunaldiaren berri izan zezaten.
- Bestalde, sare sozialak erabili genituen difusioa egiteko. Facebook eta Twitterra erabili genituen ekitaldiaren berri emateko hainbat alditan.
- Gainera, mezu elektronikoak bidali genituen unibertsitateko hainbat taldeei.
- Azkenik, ahoz-ahozko difusioa ere erabili genuen lagun gertukoena gonbidatzeko asmoz.

## BEHAR TEKNIKOAK ETA MATERIALA

- Artistak aurkitzeko kartelak.
- Ekitaldi finalerako kartelak.
- Mahaiak.
- Kontzertuetarako ekipo teknikoa (mikrofonoak, bozgorailuak...)
- Pinturak, errotulagailuak, post-it-ak eta orri txuriak.

## JARDUNALDIAREN EGITURA

Ekitaldiaren bideo eta argazki erreportaia egin nahi genuen. Horretarako, GAZEKide baten lagun batekin kontaktuan jarri ginen, Ivan Jimenez. Jada berekin lana egin izan dugu, eta benetan profesionala dela ikusi dugu.

Hizkuntzari dagokionez, zumbako dantzariak eta Zocco-ko partaideek euskaraz burutu dituzte berain tailerrak. Grafitilariak eta antzerki foroko artistek, aldiz, gazteleraz aritu dira, eta amaierako bi musika taldeek ingelesez abestu dute. NØGEN taldeak gainera, euskarazko abestiak ere kantatu dituzte.

Jardunaldiaren hasierako ongietorria euskaraz egin dugu.

## EGITARAUA

**13.00 - 13.05h** Ongi etorria/Bienvenida.

**13.15 - 13.25h** Eider Zabaleta abeslaria/Cantante Eider Zabaleta.

**13.30 - 14.30h** Bazkaltzeko ordua/Hora de comer

**14.30 - 14.35h** Gonbidatuen aurkezpena/Presentación de las personas invitadas

**14.45 - 15.30h** Zumba, Graffiti eta Zocco tailerrak/talleres.

**15.30h - 17.00h** Antzerki Foroa/Teatro Foro

**17.00 - 18.00h** ESTELIUM taldearen kontzertua/Concierto del grupo ESTELIUM

**17.00 - 18.00h** NØGEN taldearen kontzertua/Concierto del grupo NØGEN

**Ongi etorria/Bienvenida**

GAZEkideek ongi etorria eman diete artistei. Artista bakoitzari azalpen txiki bat eman zaio eta egitaraua azaldu. Aldi berean, jardunaldia inguruan zeuden pertsona desberdinei ikusarazi diegu, zer egongo den eta ekitaldi honen egitura eta helburua azalduz.

### **Gonbidatuen eta tailerren aurkezpena/Presentación de las personas invitadas y de los talleres**

Gazekideek GAZE:Kaleidoskopio proiektua aurkeztu dute, dossier batzuk banatuz eta hau azaldu egin dute. Gainera, gure proiektua esplikatu da, egunean bertan zer espero den ikusi eta ulertzeko.



#### **Eider Zabaleta**

*Abeslaria*

23 urteko gazte bat da. Aspalditik, musika talde bat dauka bere anaiarekin batera. Abesteaz gain, koadro margolaria da.

Harremanetan jartzeko prozesua:

GAZEkide batek ezagutzen zuen eta bere kontaktua helarazi zigun. Horrela, berarekin kontaktuan jarri, jardunaldia azaldu eta proiektuan parte hartzera animatu zen.

Egunean, jardunaldiaren irekiera eman du. Eiderrek hiru abesti abestu ditu euskaraz. Eider jardunaldira gonbidatu eta parte hartzeko arrazoietako bat



euskal kultura eta abesti euskaldunak sustatzea izan zen, eta aldi berean bera ezagutarazteko eta bere kantuaz gozatzeko era paregabea.



**Unai**  
*Graffiteroa*

Unai, mutil gazte bat da, betidanik artea gustatu zaiona eta graffitiak egiten dituena.

Harremanetan jartzeko prozesua:

Berarekin KA-ren kontaktuen bitartez jarri ginen harremanetan jardunaldian parte hartu zezan. KA-n lan egiten duen GAZEKide batek ideia esan zigunean, berehala jarri ginen berarekin kontaktuan, email bidez. Hasieratik irekia azaldu zen proiektuan parte hartzeko. Eta horrela lortu genuen gure lehenengo tailerra.

Horrela, egunean bertan, beharrezko materiala edukita lanean hasi da, aularioko paretan bere graffitietako bat egiten, artea sustatzeko helburuarekin.



## **Uxue eta Irene** *Zumba*

Uxue eta Irene, zumbako klaseak ematen dituzten bi ikasle dira. Aurten hasi dira zumbako klaseak ematen eta beraien asmoa honekin jarraitzea da, ikasten dituzten pausu eta dantza berriak jendeari erakustsiz.

Harremanetan jartzeko prozesua:

GAZEkide batek, topaketa batzuetan ikusi zituen eta ezagutzen zituela aprobetxatuz, beraiekin kontaktuan jarri zen. Proiektua azaldu eta eguneko jardunaldiak azaldu eta egunean parte hartuko zutela jakinarazi ziguten.

Egunean bertan, bazkal ostean, zumbako 5-6 abesti irakatsi dizkigute aulariopean. Hauen parte hartzearen arrazoia, egun, modan dagoen aktibitatea dela aprobetxatu nahi izan dugu. Gainera, edozeinek praktikatu dezakeen zerbait denez, aproposa iruditu zitzaigun egunari alaitasuna emateko.





## **ZoccoHandmade**

*Poltsa marka*

ZoccoHandmade hiru neskek sortutako boltso marka bat da, "Creamos complementos únicos con texturas de distintos rincones del mundo". Baina orain, beste kide batzuk ere parte hartzen dute bertan. Euren lanean, munduko herrialde ezberdinetako (India, Marruekos, Bolivia, etab.) emakumeei lana ematen diete. Lan honetan helburu desberdinak dituzte; alde batetik, baliabideak ez dituzten emakumeei lana eta soldata bat ematea da. Modu honetan, gutxietxiak diren emakume hauei enpoderatzeko baliabideak ematen dizkietelako. Bestalde, euren lanei esker beraien kultura zati bat eskaintzen dute.

Harremanetan jartzeko prozesua:

GAZEkide baten lagun bat, marka honen sortzaileetako bat da eta bera jarri zen kontaktuan erakusketa aurrera eramateko.

Egunean bertan, txoko bat montatu da. Bertan, egindako proiektu desberdinak azaldu dira eta sortutako produktu desberdinen argazkiak. Gerturatzen zirenei, proiektua azaldu eta parte hartzeko aukera eskaini da.

Zocco-ren parte hartzearen arrazoietako bat, ekintzailetasuna sustatzen dutela izan zen eta gainera, kultura eman eta jasotzeko proiektu interesgarria iruditu zitzaigun.

**Antzerki foroa/Teatro foro**



*Antzerki Foroan parte hartu zuten neskak*

Antzerki foroa, Zapalduen antzerkiko teknika bat da, Augusto Boal antzerki zuzendariak sortutako metodologia. Antzerki honen helburu nagusia, antzerkia kultura adierazpen gisa sustatzea da. Antzerki mota honek, ariketak, jolasak eta antzerki teknikak nahasten ditu, tresna eraginkor bat bilakatuz, ulermena eta arazo sozial eta pertsonarteko alternatiboak aurkitzeko.

Harremanetan jartzeko prozesua:

Gure GAZEKide bat antzerki foroaren sutsua izatearen zortea dugu. GAZEKide honen kontaktuari esker, Esther izan genuen saio batean antzerki foroaren kontzeptua eta lan egiteko era ulertu ahal izateko.

Oso gutxik ezagutzen genuen antzerki mota hau eta bizi izandako esperientziari esker, antzerkiaren bitartez transmititzen dena sentiarazi izan dugu.

Antzeztutako obrak GAZEKideen artean egindako dinamika batetik ateratako kezka eta arazoak azaltzen du. GAZEKideak izan dira hortaz tematika definitzeaz arduratu direnaz.

Hainbat entsegu eta gero, antzezpene oso aberasgarri bat atera da, gure jokaerei eta nortasunei buruz hausnartzera bultzatu duena.

Antzerki foroa izatearen arrazoietakoa bat, berrikuntza inklusiboa sustatzen duela izan zen eta gainera, kultura sortzeko era interesgarria, non GAZEKideak beren lana autogobernatzeko aukera izan zuten.

## Amaierako kontzertuak/Conciertos finales

### ESTELIUM

Hiru kideez osatutako musika talde berri bat da. Orain gutxi sortutako talde bat da eta ekitaldi honen bitartez ezagutaraztea zuten helburu, hau izan baita beraien lehen kontzertua.

Harremanetan jartzeko prozesua:

Kultura Alternatibo-ko Jokin jarri zen kontaktuan taldearekin eta gure taldeko GAZEKide bati pasa zion kontaktua. Beraiekin kontaktuan jarri eta gure egoera eta proiektua azaldu ondoren baiezkoa eman ziguten.



### NOGEN

*Markel, Alex eta Maddi*

Nogen hiru gazteek osatutako talde bat da. Beraien kontaktua GAZEKide batek eman zigun. Honek, zer jotzen zuten eta beraien gogoak azaldu

zizkigun eta inongo dudarik gabe beraiekin kontaktuan jartzea erabaki genuen.

Beraiekin hitz egin genuenean bi aldiz pentsatu gabe baietz esan ziguten, hau izanik beraien lehenengo kontzertua. Hauek gure kultura jardunaldietako itxiera kontzertua izan zen.

Nogen parte hartzearen arrazoi nagusia, iniziatiba sustatzen duten gazte musikari talde bat dela iruditu zitzaigun. Honekin batera, beste gazte askoren eredu izan daitezkeela pentsatuz.

### Ondorioak/Conclusiones

Ekitaldian egon garen GAZEKideok, gustora egon gara jendea gure ekintzetan parte hartzen ikusi dugunean. Baina egia da, momentu batzuetan partaide gutxi egon direla.

Jarraian, gure ondorio orokorrak laburbilduko ditugu.

## ONDORIO OROKORRAK

Ekitaldi honen helburua Kultura Alternatiboa eta gazteon arteko zubia eskaintzea zen. Honekin batera, kultura eman eta jasotzeko espazio bat sortzea.

Jardunaldian, gutxi gorabehera 50 ikasle, 19 artista desberdin, hamar bat gazekide eta idazkaritza teknikoak izan dira. Honekin batera, bi tekniko eta beste pertsona bat izan ditugu grabatzen. Jardunaldien iraupena 5 ordukoa izan da.

Jardunaldiaren ostean, hau da GAZEKideok egin dugun balorazioa:

## ONDO ATERA ZENA

- Naiz eta, azkenengo momenturarte jardunaldirako artistak lotzen egon (azken momentuko zailtasunak direla eta), egunean bertan, proposatutakoa bete dugu eta kartel txukun bat betetzea lortu dugu.
- Aukeratutako eguna, gure ustetan, aproposena ez izan arren, jendea gerturatu da jardunaldira eta hurbildu direnak pozik ikusi ditugu eskaini ditugun ekintzekin. Gure ustez, parte hartze nahikoa egon da ostirala izateko.
- Antzerki foroa nahiko ongi ateratu da. Espero zena baino jende gutxiago egon arren, bertaratu direnak modu aktiboan parte hartu dute eta antzerkia aurrera eraman duten aktoresak oso ondo antzeztu dute.
- Parte hartu duten artisten kalitatea bikaina izan da eta aurkeztu dugun/duten jarrera ere ona.
- Lortu ditugun artista edota tailer desberdinak interesgarriak izan dira eta denek aportatu dute zerbait bereizgarria eta aberasgarria.

## GAIZKI ATERA ZENA

- Ekitaldiaren plangintza/gidoia: Eginda geneukan, baina agian zehatzagoa egitea beharrezkoa zen.
- Ordu-tegiaren jarraipena: Ekitaldiaren hasiera berandutu egin zaigu, antzerki fororako eszenatokia prestatzen ari zen teknikoaren laguntza behar genuelako kanpoko soinu ekipoa montatzen hasteko. Hori konponduta, eguerdi aldera, prestatuta geneukan ordu-tegiarekin jarraitu genuen.
- Artista batzuekin kontaktua: Parte hartu behar zuten artista guztiak, euren hasiera orduan baino ordu erdi lehenago zeuden zitatuak, musika taldeak izan ezik, denbora gehiago behar dutelako soinu frogak egiteko garaian. Azkenengo taldearekin gaizki ulertu bat egon da eta 2 ordu lehenago gerturatu dira. Honen ondorioz, azken aurrekoak jotzea erabaki zuten. Momentu horretan, eztabaida bat eman arren, arduradun bezala geundenok egoera nahiko ongi bideratu/kudeatu dugu.
- Difusioa: Hainbat arazo direla medio, oso berandu hasi ginen difusioarekin eta horren ondorioz parte hartze eskasagoa izan dugu.

- Eragilearekin harremana: Komunikazioa ez zen zuzeneko izan, zeharkakoa baizik eta honen ondorioz, gure helburuetariko bat ez zen bete, hau da, ez zen KA ezagutzera eman.
- Lekua (eguna/eguraldia): Ostiralean egin genuen eta ikusi genuen bezala ez da egun aproposa izan. Bestalde, egunean bertan egiten zuen haizeak eguerdiko eta arratsaldeko catering-ak oztopatu dizkigu. Hala ere, ahal izan dugun irudimen guztia jarri dugu martxan, janaria haizetik babesteko.
- Antzerki foroko difusioa gaizki egina: Ez genuen azkenengo momenturarte egin. Arazo batzuk direla eta kartelarekin.
- Helburu desberdina prozesu guztian zehar: Hasieran helburua ondo finkatuta geneukan eragilearekin baina denbora aurrera joan ahala helburua nahastu egin genuen. Gainera, gure artean berdina gertatu dela esan genezake.
- Feeling gutxi eragilearen partetik: Eragilea eta gure arteko harremana ez da oso ona izan, komunikazio falta nabaria egon da.
- Whatsapp bitartez komunikazioa: Gure artean, informazio falta egon ez zedin whatsapp-a erabili izan dugu eta momentu puntual batzuetan gaizki ulertuak eman dituen erreminta izan da.
- Komunikazio falta gure artean, hau da, ez dugu bata besteari entzun.
- Unaiek ez zuen tailerra egin: Agian ez zitzaion ondo azaldu tailerra egin behar zuela eta horren ordeaz, bere artea egin zuen. Gainera, nahi izan duena idatzi du. Hurrengo baterako hori adostta egon behar duela uste dugu.
- Aularioa hartzerakoan arazoak: Nahiz eta erreserba ongi egina egon, azkenengo momenturarte gestio nahiko kaxkarra egin dute EHU/UPV-en. Gaizki ulertuak egon dira.
- Ezin izan genuen antzerki foro osoa grabatu deskoordinazio eta arazo tekniko batzuen ondorioz.

## **ALDATU BEHARREKOAK EDO AUTOKRITIKA**

Orokorrean lau puntu kritiko ikusten ditugu. Hasteko eta garrantzitsuena, komunikazioaren hobekuntza izango litzateke. Prozesuan zehar, komunikazioa ez da osorik komunikatu, hutsuneak eta gaizki ulertuak egon dira eta hau izan da beste ondorio txarren eragilea, eragilearekin kontaktu kaxkarra batik-bat.



Honetaz gain, egunaren aukeraketa ez aproposa egin zen eta ostiral bat aukeratu zen jardunaldia UPV/EHU-n egiteko. Gainera, arazoak izan genituen difusioarekin hasteko eta arazo horiek ekitaldia 3 egun lehenago publizitatzera eraman gintuen, asistentzia gutxi izatearen ondorioarekin.

Beraz, ondorioztatu dezakegu, hurrengo baterako komunikazioa zaindu eta ongi erabili behar dela, eragilearekin kontaktu zuzena eramanez. Gainera, egun aproposa eskaini behar dela eta difusioa pare bat aste lehenago egitea komeni dela.

Bestalde, hobetzeko hainbat puntu identifikatu ditugu:

- Whatsapp-a erabili daiteke, baina komunikatzeko beste tresna batzuekin batera. Aktak ere astero egitea komeni da, gaizki ulertuak saihesteko.
- Gidoia hobeto eta zehatzago prestatu behar da eta egunean bertako, aldaketa txiki eta espezifikoekin eguneratua egon behar da.
- Aurrekoarekin batera rolak edo eginbehar espezifikoak zehaztea proiektua aurrera eramaten dugunon artean.
- GAZEKide bat tailer bakoitzeko. Egunean egon diren tailer guztietan GAZEKide baten parte hartzea beharrezkoa dela uste dugu.
- Laguntza eskatu eragileari. Beharra ikusi edo ez, eragilearekin komunikatu eta honen parte hartzea sustatu.
- Hobeto definitu tailer bakoitzeko denbora, edukia, espazioa, etab.
- Eragilearen aportazioa definitu eta beharrezkoa baldin bada konpromesuzko dokumentu bat sinatu, benetako elkarlana egongo dela zihurtatzeko. Azken finean, proiektu hauen funtsa "win-win" kolaborazioa baita.

## PENTAGONOA



Gaze:Kaleidoskopion aurrera eramán ditugun proiektu guztiak pentagono berdinean oinarritu dira. Hitzak dioen bezala, pentagonoak bost alde ditu eta hauek dira alde bakoitzean agertzen diren kontzeptuak; Desing thinking, ikaskuntza, kolaboratiboa, sentsibilizazioaz haratago eta iraunkorra. Eta barrualdean, berrikuntza barne hartzailea agertzen da oinarri bezala. Jarraian, pentagonoaren teoria gure proiektuan aplikatuko dugu.

**Desing thinking**-a batzuk ezagutzen ez genuen arren, zertan datzan ikasi eta gero, hainbat ekintzetarako erabili izan dugun metodologia da. Gure proiektuari dagokionez, hasiera batean, martxan jartzeko prozesuan desing thinking-a erabili izan genuen eta proiektuan zehar oinarritzat erabili izan dugun metodologia da.

**Ikaskuntza**ri dagokionez, nahiz eta jardunaldia uste genuen bezain ongi ez atera, gauza asko ikasi ditugu. Alde batetik, elkarlanean aritzen ikasi dugu eta honek ekartzen dituen onura guztiak jaso izan ditugu. Bestalde,

desberdinak garen heinean, kideengandik ikaskuntza handia izan dugu eta proiektu honetan aritu baino lehen ez genituen erremintak barne hartu ditugu. Gainera, entitate desberdinekin kontaktuan jartzen, unibertsitateko espazioak erreserbatzen, artistekin kontaktuan jartzen, antzerkia egiten eta beste hainbat gauza desberdin egiten ikasi dugu.

Proiektuari hasiera eman genionean, erabat **kolaboratiboa** izango zela pentsatu genuen. Lehenengo bilera egin genuen egunean, gogoia eta ilusioa ikusi genituen eragile eta gure partetik proiektua aurrera eramateko. Asteak aurrera joan ahala, eragilearekin harreman zuzena zeukan gure taldeko kide batek informazio zurbia egiteko papera hartu zuen eta erabaki zuzena zela iruditu zitzaigun. Baina, jardunaldiaren data gerturatzen zegoenean kolaboraziorik ez zegoela konturatu ginen. Gure artean hausnarketa egin ostean, ondorio hau ateratu dugu; informazio zurbia ez zela kidea izan behar, eta ondorioz, eragileko kideekin bilera gehiago egitea falta izan zaigula, informazioa zuzenagoa eta guztiontzako berdina izan zedin. Jardunaldiaren eguna iritsi baino aste pare bat lehenago, eragileko beste kide batekin jarri ginen harremanetan eta kolaboraziozko prozesu berri bat hasi genuen, baina hau, azkenengo bi asteetan izan zen. Laburbilduz, proiektua modu kolaboratiboan enfokatu nahi genuen, baina azkenean ez dugu helburu hori prozesu guztian zehar lortu.

Kultura jardunaldia, **sentsibilizazioaz haratago** egin den proiektua da. Alde batetik, baliabide ekonomiko-sozialak, lotsak, espazioa falta, etab. dituzten artista gazteoi kultura eman eta jasotzeko espazioa eskaini nahi genien. Espazio hori eskaintzea lortu genuen heinean, sentsibilizazioaz haratago joan den proiektua dela ulertzen dugu.

Hasiera batean, parte hartzen zuten artista guztiei, Kultura Alternatiboa ezagutzeko gonbidapena zabaltzearen asmoa izan genuen. Modu honetan, artista berri hauen kontaktua gorde, KA-ri pasa eta hauek euren datu basean sartuko zituzten, etorkizunean antolatuko diren ekitaldietan parte hartzeko helburuarekin. Honetaz gain, gure ekitaldia urtero errepikatzea posible izango zen formatu batean egin genuen. Hala ere, bi proiektu hauek bertan behera geratu izan ziren hainbat arrazoi direla eta, beraz, **iraunkorra** ez den proiektua egin genuen.

## **ESKERRAK**

## **FITXA TEKNIKOA**

GAZE

Centro Joxe Mari Korta

Avenida de Tolosa 72

20018, Donostia-San Sebastián (GIPUZKOA)

Tel.:943 018395

E-mail: gaztekinzale@gmail.com

<http://gaztekintzaile.wordpress.com/>

### **Esker onak:**

Bertan izan genituen artista guztiei; Eider Zabaleta, Unai, Uxue, Irene, ZoccoHandmade, Antzerki foroan parte hartu zuten guztiei, Esther Uria, Estelium eta Nogen taldeari.

UPV/EHU.

Eta nola ez, mila esker ekitaldira gerturatu zineten ikasle guztiei.

Donostian, 2016eko ekainaren 02an